
BELARRION



Bidaia bikoteak 'Duo' diskoa kaleratu du, euskal musika eta kanpokoak elkarri lotuta

Mixel Ducau eta Caroline Philips sortzaile eta kantariak osatzen duten Bidaia bikoteak *Duo* izeneko albuma kaleratu du, 2003an hasitako "bidaiari" jarraipena emateko. Bidaia horretan bikote honek beste musika kultura batzuk bisitatzen ditu, Euskal Herriko sustraietan erritmoak eta melodiak **mia-tzeko**' eta, aldi berean, beste tradizio batzuetarako (Afrika, Magreb, Acadia edo Kuba) zubiak eraikitzeko. *Duo* diskoak hamabi lan biltzen ditu, horietako bost instrumental. Guztiak dira jatorrizko konposaketak, Benito Lertxundiren *Herribehera* eta

Bizkaiko ohiko *Amaren alabarik* salbu. Albo-ka, **zarrabetea**², gitarra, banbuzko klarineta..., musika-tresnek eta moldakuntzek euskal nortasuna eta unibertsaltasuna biltzen dituen soinua lortzen dute. Baina hitzetan ere agertzen da bidaiaren ideia, eta arabieraz eta ingelesez daude hainbat kantu. Mixel Ducau euskal sortzaile, kantari eta musika-tresna jotzaileak eta Kaliforniako Caroline Philips greziar eta irlandar jatorriko kantari eta sortzaileak Parisen ezagutu zuten elkar, eta elkarrekin ekin zioten Bidaia proiektuari.